

PuLunPe

139. ZeNBaKia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



Olerkia

NEGUAN IZAN ZEN

IA EZER EZ DENEAN GELDITZEN
BERRIRO XURIZ JANTZIAK IKUSI
DITUT MENDIAK,
EKIALDEKO BORTUETARA
BEGIRATU DUT HUNKITUA
ETA BARNEAREN BARNE
BARNERATUENETIK ESNATU ZAIT
DENBORAREN ABARASKAREN PEAN
ESTALIA ZEGOEN KANTUA:

GOIKO MENDIAN ELURRA DAGO,
ERREKALDEAN IZOTZA.

IRUDIA: Maite Mutuberria, OLERKIA: Xabier Lete

Itziar Mariezkurrena, Eltsoko banatzailea eta Ametzakidea

Urteak daramatzagu aldizkari hau argitaratzen. Askotan, gainera, atzendu egiten zaigu zenbat buelta eta bira eman ditugun gure helburuak betetzeko xedearekin. Euskara, albisteak, elkarriketak, irratia... Gorabehera handiko ibilbide honetan, aldizkaria etxe banatzeak, betidanik erronka handia izan da.

Hasiera batean postaz egiten zen, geroago aldizkariaren eta irratia langileek egiten zuten, baina egunak egoten ziren lan horretan. Aukera desberdinak aztertzen aritu ginen Ametzan; enpresa pribatu batekin egitea, adibidez. Aldizkaria Iruñetik bidaltzen genuen postaz hilabete batzuetan; baina, garestia izateaz gain, oso berandu ailegatzen ziren aleak zuen etxeetara. Diru-laguntzak nabarmen murriztu zituztenean, banaketa-sistema birplanteatu behar izan genuen.

Azkenik, gaur egun daramagun sistema aurkitu genuen, herriz herri boluntarioek banaketa egitea. Horietako bat dugu Itziar. Otsaileko goiz hotz batean hitz egin genuen berarekin.

Noiz hasi zinen Pulunpeak banatzen?

Hasieratik, herrietara etortzen hasi zirenetik nik hartu nuen ardura. Ondo gogoratzen dut nolakoa zen sistema; posta bidez ailegatzen zen. Geroago aldaketa asko egon dira banaketa dela-eta.

Zein banaketa-modu nahiago duzu?

Nire ustez, politagoa da jendeak parte hartzea. Modu horretan herrietan borondate pixka bat erakusten da; aldizkaria gehiago sentitzeko, euskararen alde egiteko.

Denbora asko hartzen al dizu aldizkariak banatzeak?

Ez, bueltatxo bat besterik ez, paseotxo bat... Eltson 18 etxe gaude besterik ez.

Nola ikusten duzu Pulunpe?

Nik beti gustuko dut.

Izango duzu kritikaren bat edo beste...

Albiste gutxi ateratzen dira batzuetan, edo ateratzen diren albiste mota... Baina tira, leku guztietan daude gorabeherak, lan guztietan daude holakoak...

Zeri buruzko berriak sartuko zenituzke?

Tira, kasu honetan gakoa jendearen inplikazioan dago; berriak ateratzeko jendea inplikatu behar da. Jendea gutxi inplikatzeko gara berriak ematen. Borondatea egon badago, batez ere gazteetan.

Hasiera-hasieratik zaudela diozu, zein aldaketa nabarmenduko zenuke?

Formatuak aldatu dira, bai. Albisteak koloretan egoteak laguntzen du, eta albisteak formatu desberdinean egoteak erraxago egiten du albisteak bereizteko.

PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA

Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Eurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab... Barkatu aipatu ez zaituztedanoi. **Emaila: pulunpe@gmail.com**

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan eta Jorge Fdez. Mayoral.

Koordinatzaileak: **Iosu Martinez Urdaci eta Lur Gil Goñi**

Argazkiak: Txurdan, Facebook sareko jendea, Saltsa Purrusta eta Urtebetetzetara bidaltzen dituzuenak. Tirada 1.600 ale.

Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U - Lege gordailua: NA 721/93

2015KO MARTXOAREN 2AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



AGENDA

MARTXOAK 6 19.00 LARRAINTZAR ARGAZKI EMANALDIA

Begoña Arangoa eta M^a Sol Villabona "CERVINO-ra ITZULIA" iraganeko eta lehenaldiko itzulua. Lorez beteriko paisaiak Heidi ren haurtzaroa gogorazten digu, Cervino ikusgarriak eramaten gaitu "berriro ukitzeko bueltatuko naiz" esatera.

Martxoak 13 19.00 LARRAINTZAR Zirkus blai taldearen ikuskizuna Neskak gara eta zer? Somos mujeres ¿y qué? (Elebidunez)

Zapata lantegi bat, 9 emakume lanean, ene 9 ez, karola falta da, non dago?? Haurdun dagoelako lanetik bota dute... ez dago eskubiderik, hau ezin da onartu. Batzarra eta gero hau erabaki dute langileek: lantegia okupatuko dugu eta gure aldarrikapenak defendatu. Hau dena, klake, akrobaziak, akroporteak, umorea, erritmoz blai.

ERAKUSKETAK

Las Estrellas en el Silencio
Martxoak 09-Apirilak 07 "Nire eskuak nire gorputzaren zati sagratuenak dira. Hauek marrazten duten bitartean beti errepikatzen den gaia erakusketan honetan ere agertzen da, hau da, edertasunaz eta indarrez betetzen joandako emakumeak bideari aurre egiteko. Bide hau bizitza da. Ezberdina egiten duen erakusketa da jatorria: haurtzaroan jaiotako txispak. Argiaren eramaten dugu."

MARTXOAK 27 de MARZO 19.00 LARRAINTZAR

LOREAK pelikula euskaraz
Hiru emakumeren istorioa da hau; lore-sorta xume batzuek goitik behera aldatuko dituzten hiru bizimodu. Lore horiek ahaztutzat zituzten sentimenduak azaleratuko dituzte... Baina, azken batean, loreak baino ez dira.

ULTZAMAKO UDALAK KULTURA LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZAK ARGITARATU DITU, INFORMAZIO GEHIAGO UDALETXEAN AURKITU DEZAKEZU!

Errigora: Olioia ere eskutik eskura!

Errigorak berriro eskaintza interesgarri bat helarazi digu eta ekimen honekin bat eginik, eskaintza hau zeuen eskura jarri nahi dugu. Asko gara udazkeneko kanpainako keinuaz harago, gure kontsumo ohiturak birplanteatu eta, urrune-koen ordeaz, urte osoan bertoko jakiak kontsumitzeko prest gaudenok. Horretara dator ESKUTIK ESKURA, Nafarroa hegoaldeko produktuak herriz herri eta ekizlearen jatorrizko prezioan eskaintzera, despentsa urte guztirako betetzeko. On egin!

SORMENA
DA BIDE
BAKARRA.

OLERKIA

~ OKAZTATURIK ~

Kokoteraino,
nazka-nazka,
asperturik.

Pazientzia ahiturik
naukazue.

Hainbeste gezur,
promes eta lapur.

Hainbeste faltukeria eta
hitz hutsal.

Zoazte pikutara!!

edota

(hobe esanda)

Pikutara goaz.

Jose Javier Elizalde



KORRIKA PROGRAMAZIO PROPOSAMENA

ARRAITZEN, MARTXOAK 20.

**-HERRI KIROLAK
-PAILAZOAK
-JATEKOA
-KORRIKA BADATOR!**

**ETA ONDOREN JATEKOA
EGONEN DA ERE...**

BERRI TXARRAKEN AZKEN DISKA

IRABAZI NAHI?

**ASMATU ZER HERRI ETA
MENDI DIREN
26 ETA 27 ORRIALDEETAN
DAUDENAK!**

**IDATZI ZURE ERANTZUNA
PULUNPE@GMAIL.COM HELBIDERA!**

Euskararen gorabeherak


Nafarroako Gobernuak argitaratu berri duen 2011ko mapa soziolinguistikoak euskararen osasunaren berri eman digu. Nafarroako eremu ez-euskaldun eta mistoan hobera egiten duela ematen du, eta eremu euskaldunean okerrera. Hori diote ehunekoen datuek, baina Gobernuak ez du datu lokalik eman, eta zehatzago aztertu beharreko kontua da.

Gurean, Basaburua, Imotz, Ultzama eta Odietako datuak bilduta ditugu, Iparraldeko Mankomunitateko datuekin batera. Euskararen ezagutza, etxeko lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza erabilienaren datuak ematen ditu mapa soziolinguistikoak. Datu asko falta zaizkio mapari, eta beraz, zaila da ondorio argirik ateratzea.


Euskararen ezagutzari dagokionean, ehunekoei erreparatuta atzerakada, egon, badago. Hala ere, biztanleen kopurua eta joan-etorriak ez dira kontuan hartzen hemen, eta faktore garrantzitsua da. Bestalde, datu pozgarri bat ere badago, generazio berrietan euskararen ezagutza %85 baino handiagoa da:




Euskararen ezagutza (2001)
Basaburua, Imotz, Ultzama eta Odietan



Euskararen ezagutza (2011)
Basaburua, Imotz, Ultzama eta Odietan




Euskararen ezagutza (2011) Iparraldeko mankomunitatean adin taldeka



Lehen hizkuntza (2001)
Basaburua, Imotz, Ultzama eta Odietan

Lehen hizkuntza (2011)
Basaburua, Imotz, Ultzama eta Odietan




Lehen hizkuntza (2011) Iparraldeko mankomunitatean adin taldeka



Etxeko hizkuntza erabili
(2001) Basaburua, Imotz,
Ultzama eta Odietan

Etxeko hizkuntza erabili
(2011) Basaburua, Imotz,
Ultzama eta Odietan



Ipar Mankomunitatean etxean erabili.

Orain arte ditugun datuekin beraz, azaleko bi ondorio aterako genituzke: alde batetik, gaztelaniaren erabilera euskararena baino azkarrago ari da igotzen gurean, baina populazioaren joan-etorriek eragin zuena daukate horretan. Eta, bigarrenik, adin taldeka aztertuta, generazio zenbaitetan euskarak beherakada handia jasan zuen, baina belaunaldi berriek euskararen bermea izan daitezkeela ondorioztatu daiteke datuetatik.



SAIOA OTXANDORENA, LIZASOARRA

“Jakintza aldetik ez dago atzerakadarik, gehienek euskaraz ikasten dute. Nik uste arazoa erabilera aldetik dagoela, bai haurrengan eta baita gazteengan ere. Eskolatik ateratzen direlarik euskara uzten dute.”
“Etxe gehienetan erdaraz egiten da. Ultzaman euskararen hutsune handi bat dago belaunaldi batean, eta horrek seme-alabengan badu bere eragina. Gurasoen eta helduen artean ez bada euskara entzuten, zaila da haurrek euskaraz egitea”



AINARA URRITZA, ERASOARRA

“Gurasoak erdaldunak direnean joera dute harrek erdarara egiteko, baina aldaketa nabaria da, hurrengo belaunaldietan erabat ikusten da euskararako joera.”
“Ez dut ikusten hemen atzerakadarik egon denik, aurrerakada baizik, baina aldaketa ikusteko denbora behar da, ez da egun batetik bestera gertatzen.”

Haize kontra bada ere, aurrera

Joxerra Olano, euskara irakaslea

Hala egin genuela dirudi 1991tik 2011ra bitartean Nafarroa Garaiko euskaldunok. Hala erakusten du behintzat orain dela aste batzuk Nafarroako Foru Parlamentuan aurkeztu zuten V. Mapa Soziolinguistikoak.

Inkesta horren ezaugarri teknikorik ez digute jakinarazi, ez zenbat laguni egin dizkieten galderak, ez bestelako konturik. Dena dela, hor ageri denaren arabera, 32.617 euskaldun gehiago ziren 2011n hogeiei urte lehenago baino. Ez dira pozaren pozez saltoka hasteko moduko kopuruak; baina garbi dago beste pauso bat aurrera egin genuela 20 urte horietan, oztopoak oztopo. Gainera, 1986ko Euskararen Foru Legeak ezartzen dizkigun hiru eremu geografikoetan irabazi ditu hiztunak euskarak.

Bestalde, euskara ulertu baina ongi mintzatzeko gauza ez direnak ere ugaritu egin dira Nafarroa Garaian. Igoera pozgarri hori ere hiru eremuetan gertatu zen. Begien bistakoa da aurrerapena euskararen ezagutzari dagokionez, ezkutatzen zaila, eztula eta dirua ezkutatzea bezain zaila. Alferrikakoa da datu horien berri ehunekotan bakarrik ematea, populazioa zenbat hazi zen aipatu gabe, edo 1991tik

2011ra estatu espainiarretik kanpoko 70.000 atzeritar inguru etorri zitzaizkigula esan gabe.

Egia da etxeko erabilera apaldu egin zela 1986ko Euskararen Foru Legeak eremu euskaldun esaten dion horretan, mapa soziolinguistikoaren arabera, eta ia 3.000 lagun gutxiago zirela etxean batez ere euskaraz mintzatzzen zirenak. Etxean euskaraz eta gaztelaniaz aritzen zirenen kopuruan, berriaz, galera 627 lagunekoa izan zen. Poliki aztertu beharreko kontua dela iruditzen zait, parlamentuan euskararen erabilieraren gaineko ahokadak botatzen hasi aurretik. Hasteko, jakin beharko genuke zenbat erdaldun etorri diren eremu horretara bizitzera eta zenbat euskaldun joan diren bertatik.

Dena dela, harro egoteko motiboak baditugu Nafarroa Garaian bizitzaren alor guztietan euskaraz bizi nahi dugun herritarrok, aurrera egiten ari gara eta, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika suntsigarri eta lotsagarria gorabehera. Guk nahi baino mantsoago, jakina, baina zenbait uste baino bizkorrago. Hori haize kontra ibilita. Pentsa non egongo ginatekeen haize alde ibili izan bagina.

Martxoak 8. Emakumeen Nazioarteko Eguna



Data honetan atzera begiratzen dugu, emakumeen alde zer lortu dugun kontuan hartzeko eta nola aitzineko emakumeek lan egin zuten hori lortzeko. Ez dugu ahaztu behar oraindik beste tontor batzuk lortzeko bidean gaudela.

Bi gauza hauek buruan izan ditugu aurtengo egitaraua prestatzean: ekimen batzuk ospatzeko dira eta tartetxo ona pasatzeko asmoarekin antolatu ditugu, eta beste batzuk aldarrikatzeko ekimenak dira. Horretaz gain, gai ezberdinak ikutu nahi genituen: artea, kirola, transgeneroa, laneko bazterkeria, gaixotasuna, eta abar.

Egitaraua otsailean hasi bazen ere, martxoaren 6an, Iraizozko Begoña Arangoak eta Marisol Villabonak mendira ateraldietan egindako argazki emanaldia emanen dute (Cervino-ra itzulia), emakumeak ere mendizaleak baikara eta mendira joatea gustuko baitugu.

Hurrengo egunean, martxoak 7, Basaburuan autokarabana, poteoa eta pankarta jarriko dute. Dena hasiko da arratsaldeko 19etan, Jauntsararen. Bukatzean, elkartuko dira Benta Udaben, afaltzeko eta musikak ezin zuenez huts egin, tango espektakuluaz disfrutatuko dute, Che Pitukarekin.

Martxoak 8, igandearekin, emakumeen naizorteko eguna, Iruñeko manifestaziora joateko deia egiten dugu. 12etan hasiko da gaztelu plazatik. Ez dugu ahaztu nahi emakume izateko anitz modu daudela eta genero mandatuarekin hausteko era asko daudela. Eta gainera, ez dugu ahaztu behar berdintasuna lortzeko berdintasun politikak beharrezkoak direla, eta

gaur egun gai honekin alerta morean gaudela.

Egitarauarekin jarraituz, martxoaren 13an antzerki eta zirko ikuskizunarekin disfrutatuko dugu: Neskak gara eta zer? Antzerkiaren gaia da laneko diskriminazioa. Joan den mendearen hasieran dago kokatuta, lantegi batean emakume bat haurdun gelditzeagatik kaleratzen dute. Beren emakume lankideek batzarra egiten dute eta kexatzea erabakitzen dute. Akrobazia, klakea, dantza erabiliko dute hori egiteko. Adin guztietako ikuskizuna da. Martxoaren 21ean, Odietara joz, San Urbanora mar-txa egingen dute eta tontorrean hamarretakoa hartuko dute. Jaistean Anotzibarren bazkalduko dute eta bukatzean Las chicas de la lencería izeneko filma ikusten arratsaldea emanen dute.

Hurrengo egunean, igandearekin, Basaburuko eskualdean Itziar Zigarekin egonen gara 18etatik aitzinera, Basaburuko kultur etxean. Bere liburua, *Mal-ditas, una estirpe transfeminista*, aurkeztuko du. Liburu honekin feminismoa oso anitza dela azaldu nahi du. Emakume zapalduenak bigarren mailakoak direnik eta jarrera pasiboa dutenik ukatu nahi du. Horrexegatik emakume beltzak, anarkistak, transexualak, txiroak... emakume hauek borrokatu dira bai genero zapalkuntzaren kontra bai beste zapalkuntza batzuen kontra ere, hau da: klasea, arraza, erlijioa... Martxoak 27an Loreak pelikula ikusteko aukera izanen dugu Larraintzarko Bentan.

Horretaz aparte, apirilean eta maiatzetan barre terapia eta besarkada terapia ikastaroa egingen da Basaburuko kultur Etxean. Alde batetik barre egitea oso ona delako. Batzuetan komenigarria da bakoitzaren egoeraz barre egitea. Eta, beste aldetik, barre horiek partekatu behar dira, maitasuna partekatu behar da eta erakutsi ere bai. Besarkadak ematen eta maitasuna adierazten ikasiko dugu.

Martxoan, emakume artista batek ekarriko dizkigu beraien obrak Larraintzarrera. Erakusketaren izenburua Izarrak isilpean da. Oso erakusketa berezia da, xarma handikoa. Alexandra Gapihan deitzen da bera, eta hauxe da, haien esanetan, erakusketaren gaia: bideari, hau da, bizitzari aurre egiteko emakumeak edertasunez eta boterez betetzen joan dira. Artistak erakusketa honetan haurtzaroan hartutako txispak adierazi nahi ditu. Emakumeak argiaren emaileak garelako.

Esker mila esan nahi diet Basaburuko Udaleko Batzordeari, Basaburuko Basandereok elkarteari, Mankomunitateko Berdintasun batzordeari eta egitarau hau egiten lagundu duten guztiei.

Gainezka egiten

Mindak gordetzen dituzten baltsak gainezka eginda, soroetan barratzen ari dira



Auza eta Gorrantz-Olanoko baltsak

Iraizozko poligonoan kokatuta dagoen minda tratamendurako plantaren egoera gero eta larriagoa da. Iazko azaroan Ultzamako Udalak kudeaketa hartu bazuen ere, arazoak ez dira bukatu. Otsailean bailaran zehar kokatuta dauden baltsek gainezka egin dute eta, horretaz gain, kamioiekin soroetatik minda likidoa bota dutela salatu du EH Bilduk eta baita frogatu ere: hedabideei helarazitako argazkietan ikusi daiteke baltsen egoera, eta baita minda botatzen ari direla ere.

Horretaz gain, hilabete hasieran alderdi abertzaleko lagun talde batek Bioenergia plantara bisita bat egin zuen eta bertan gerenteak azaldu zuen, besteak beste, Gorrantz eta Auza baltsek "segurtasun arazoren bat bazuten ere", orokorrean, 33 eguneko tartea zegoela oraindik. Azken asteetan jasan dugun denboralea dela eta,

euri asko egin du eta minda soroetan barratzen ikusi dituzte. Plantako arduradunari zer gertatu den galdetu diogu, baina ez du deklaraziorik egin nahi izan. Gogoratu beharra dago, Nafarroako 148/2003 Foru dekretuak argi esaten duela ezin izanen dela ongarri likidoa zabaldu "uraz blai edo putzuak daudenean" eta "lursailetan, ur-korronteak isurketaz kutsatzeko arrisku handia dagoenean, ez da simaur likidorik erabiliko."

Gauzak horrela, mindaren tratamenduan egindako "kudeaketa txarra" kritikatu du Bilduk eta erantzukizun politikoak eskatu: "Gur eustez Udalak bere gain hartu behar du gertakari horren erantzukizuna eta lehentasuna eman behar dio ingurumena babes-teari". Aldizkari honek udalaren iritzia zein den jakin izan nahi du baina ez dute deklaraziorik egin nahi izan.

Arraiztar ugari "El otro mapa de Abauntz" dokumentalaren estreinaldian



Irudian, Aitor Gametxo zuzendari bizkaitarra

Gustura atera ziren bertaratutakoak, bereziki Arraiztik joandakoak, beren herria eta biztanleak Iruñeko Baluarteke zinema aretoan ikusita. 30 biztanle inguru joan ziren estreinaldira, tartean Lorenzo Eizmendi Txin. Pozik atera zela dio, gustatu egin zitzaio-lan dokumentala: "Arraroa da, ezberdina; Aitor Gametxok daukan harrikada adierazten du, baina gustura gaude herritarrok, opari bat izan da guretzat".

Herriaren irudi ugari ditu dokumentalak: gurutzeen erromeria, mamiaren eguna, txondorra egin zutenekoa, kobazulora bisita, sanjuanetako suak... Herriari lotuta geratu da Gametxo dokumentalaren ondoren, eta honek ere bere poza adierazi du estreinaldiaren arrakastagatik. Hemendik aurrera areto gehiagotan aurkezteko asmoa dauka, baina merezitako oporraldi bat hartuko du lehenago.

Duela 13.000 urte Abauntzeko biztanleek egindako mapa bat aurkitua izan zen lehenik, eta orain, Gametxok, Arraizten grabatutako material guztia lurperatu egin du inguru bertsuetan, hemendik beste 13.000 urtera norbaitek aurkituko balu, bertako ohiturak eta bizimodua zeintzuk ziren ikus dezan.

Gure eskolek badituzte haur berriak datorren ikasturterako




Euskal Herriko Mus-
txapelketaren VII. edi-
zioko herrialdeko finala
zen. Taldeak egin on-
doren, lehenengo atala

Idoia Auzak azpimarratu nahi izan du oso emakume gutxi zeudela jokoan: “Jende askoren babesa jaso nuen, pozik zeudelako emakume bat irabazten ikustez”. Zorionak, bada, irabazle eta parte-hartzailei eta ea orain non gordetzen dituzten sariak eta txapelak, bikoiztuak dituzte eta!

Larraintzarko eskolak Odieta, Atetz, Ultzama, Anue eta Lantzko 27 haur berri izanen ditu heldu den ikasturtean. Bi ikasgelatan banatu behar izango dituzte, aurreko

Xinbili Xanbala haur eskolak ere aurreikuspen bera dauka, aurtien plaza guztiak bete egin dira, eta aurre-matrikulazio kanpaina honetan kopurua mantentzea espero dute. Kopurua pixka bat jaitsi egin dela dio Maitane Mendibe hezitzaileak, eta krisiak eragin nabaria duela, baina haurren hezte prozesurako proiektu honek merezi duela dio. Haurrei ematen dieten heziketa ikusi ahal izan zuten gurasoek otsailaren 23an egin zuten ate-irekiera jardunaldietan. Bertan proiektua eta hezigunea ezagutzeaz gain zalentza guztiak argitzeko aukera izan zuten.

Martxoaren 17ra arte
dute aurre-matrikula
kanpaina zabalik beraz
Xinbili Xanbalan.



Legealdi honetan, beraz, laugarren urtez aurrera atara dira aurrekontuak, oposizioaren babesik gabe hala ere, eta foru eta udal hauteskundeetan atarian.

GAN enpresaren EREa atzera bota dute



Hilabete honetan berriz irakurri ditugu komunikabideetan zenbait enpresen zailtasun egoerak: Faurecia, Tuterako BASF, Koxka...

Halere, hainbeste albiste txarren artean, GAN enpresan (Gestión Ambiental de Navarra) albiste pozgarria jaso dugu. Kaleratutako 32

langileak enpresak berriz onartu behar dituela. 2013. urtean, aldizkari honetan eskualdeko enpresa horren 3 langile elkarrizketatu genituen, eta orain horietako batekin berriro hitz egin dugu. Igoako Santosek orain “esperoan” daudela dio, “enpresak zer pauso emanen dituen zain”.

Kaleratzeak planteatu zirenean, langileek gogor salatu zuten bizi

zuten bidegabekeria, Nafarroako Gobernua- ren “akatsak” beraiek ari zirela ordaintzen. Oraingo honetan, “formazko akats” bati esker itzuliko dira lanera, EREari jarritako errekurtoa aurrera atera ondoren.

“Kaleratzei 5 puntuko alegazioak aurkeztu eta lehenengo puntua ikustearekin atzera bota ditu epaileak kaleratzeak, besteak irakurri ere egin ez dituela. Santosek “txapuz hutsa” izan dela salatzen du, eta kexu da azkenean hiritarrok ordaindu behar ditugula kontu hauek: “Nafar guztion

dirua gastatzen da holako prozesu judizial luze eta garestiak aurrera eramateko”. Igoakoa biztanleak salatu du he- dabideek izandako jokamoldea: “Badirudi lan- gileak gaiztoak garela, soldatak ordaindu ezin duen enpresara bueltatu behar garelako, baina ez da horrela; enpresa sos- tengarria zen eta beraiek sortu duten arazoa, lan- gileak erantzule egin nahi gaituzte, lotsaga- rria da”.

Bukatzeak, salatu du politikarien erantzuki- zun eza: “Erabaki horiek ezin dira arinkeriaz har- tu”.

Euria, elurra eta izotza. Eguraldiak ez du bake- rik eman azkenaldian



Negua horrelakoa da, gure eskualdean berezi- ki, baina azken asteetan denborale gogorra izan dugu. Elurra izan genuen lehenik, ho- tza ondoren, eta tenperatura baxuek elurra eta izotza egun luzez mantendu zuten.



Irudi batean

Herriaren ondasunak berreskuratzen

Odietan eta Gartzaronen Santurbe eta apezetxea



Azken asteetan antzekoak diren bi prozesu bukatu dira: Odietako Santurbe baselizaren eta Gartzarongo elkartearen eraikinaren berreskuratzea. Bi prozesuak antzeko ibilera izan dute: negoziazio prozesu luze bat izan da, eta baldintzak aldatu ondoren akordioetara ailegatu dira.

Santurbeko baseliza alboko mendi batetik ikusita

Gaskueko termi- noan kokatuta dagoen Santurbe- ko baselizan errebisio bat egin zen duela pare bat urte. Eraikinaren bobadak erortzeko arris- kua zuela eta, 100.000 eurotan baloratutako obrak egin behar zirela zioen ikerketak. Baila- rako herrietan bilerak egin ondoren erabaki zen inbertsio hori egitea, urtero egiten den erro- meria jendetsua eta ba- seliza ederra mantendu nahian. Artzapezpiku- tzarekin negoziazio luze baten ondoren baziru- dien akordioa eginga ze- goela, baina baldintzak

aldatu ziren. Odietako zinegotzi batek esan di- gunez, “elizaren aboka- tuak azken momentuan deitu zuen klausula berri bat sartu nahian, baseli- zan etorkizunean egingo diren erabilpenen ingu- ruan, kristau fedearen aurka doan edozein jar- duera edo ekintza egi- ten bazen, jabetza eliza- ra itzuliko zela esanez”. Zinegotzi honek beraien “harridura”, azaldu du, “dirua eta obrak guk egin ondoren, jabetza elizara itzultzeko” auke- ra horrekin, kontuan izanda klausula horrek duen irakurketa “zaba- la”. Gauzak horrela, ne-

goziatu egin da eraikina bereiztea; tenplua alde batetik eta sakristia, aterpea eta sukaldeak bestetik. Azken hauek erabilpen erlijiosoetatik kanpo geratzen dira. Si- natutako akordio horre- tan onartzen da elizak, eraikinaren jabetza be- rreskuratzen badu, obre- tan inbertitutako dirua ordaindu beharko duela.

Gartzarongo kasua

Herriko elkarteak da- goen eraikina elizarena zen. Aspaldidanik ja- betza herrira pasatzen saiatzen ari ziren, baina “diru asko eskatzen zu- ten”. Elkarteko batzarre-

ko pertsona batek esan digunez, gorabehera as- koren ondoren prezioan “nabarmen” merkatzea lortu dute. Artzapez- pikutzari alokairu bat ordaintzen zitzaion, baina bazkide guztiek, iaz egindako batzarrean onartu zen erosketa egitea. “Inau- gurazioa” egin aurretik, oraindik zenbait lan egin behar dira; momentuz tximinia egin dute, eta udaberrira arte itxoin behar da teilatua kon- pontzeko, erosi aurretik, teilatua konponketa “guk ordaindu behar ge- nuela esaten baitzigu- ten”.

Iritzia

Musika (eta II)



Anjel Lertxundi

Txikitan Mari Maistrarena bi- daltzen gintuzten, eta han, ukuilu baten ondoan, dotrina ikasten genuen buruz, testuak erdi kantuan errezi- taz. Pasatu dira urteak, ahaztu zitzaigun testu haietako edukia, baina buruko txokoren batean behar dute buruz ikasi- takoaren erritmoak eta musikak.

Zenbat kostatzen zai- gun aspaldi praktikatu ez dugun atzerriko hizkuntza batean arrankatzea... ha- rik eta hizkuntzaren mu- sika entzuten hasi eta hark eramaten gaituen arte. Be- rezko musikaltasuna la- gun, atzerriko hizkuntzak abaila hartzen du, ez zaigu jada hain arrotz atzerriko. Hizkuntza propioan areago gertatzen da noski. Baina buruz ezer

ikasteak prestigioa gal- du du, eskoletan ape- nas erreztatzen omen da seneko euskal tes- turik, ez literariorik ez bestelakorik. Baztertu zen poesiak, testu errit- mikoak, hitz jolasak buruz ikasi eta, hizkun- tzaren beraren musika lagun, testuaren errit- moa eta umeen arna- sarena eskutik hartuta erreztatzeak ohitura...

Liburuak eta ametsak sortzen

Maite Mutuberria ilustratzaileak ikastaro “magiko” bat eskaini zuen erakusketa aurkezteko.



Duela zazpi bat urte Madrilen bizi bada ere, noizbehinka itzultzen da gurera. Beti lanez gainezka harrapatzen dugu, baina minutu batzuk eskaintzen dizkigu. Oraingo honetan, “Gerrak ez du izenik” liburuaren tripak erakutsi zizkien Larraintzarra hurbildu ziren ume, lagun eta gurasoei. Liburu honen sorkuntzan sartuko gara gu ere.

Larraintzarko Gizarte Etxean dagoen erakusketan, liburu horren sorkuntzan erabilitako material desberdina aurkitu ahalko duzu; argazki zaharrak, zirriborroak, irudiak... Eta erakusketa aurkezteko, ikastaro txiki bat antolatu zuten Gizarte Zerbitzuen eta Maiteren artean. Kontuan hartu beharra dago liburu ilustratu honen gai orokorra guda dela, “ez da erraza, hasieratik, gai hau umeei azaltzen”, horregatik, erabaki zuten haien lana hurbiltzea; “irakurleei hurbiltzeko helburuarekin egiten ditugu ikastaroak”. Eltzaburuar honen esanetan, ez da normalean arreta jasotzen duen lana: “ilustratzaileon lana ez da ezagutzen”, horrela tailerraren bidez, “liburua nola sortu, irudiek duten lana, esanahiak eta sekretuak” azaldu zituzten, azken finean “liburuari tripak atera genizkion”.



Partaide txiki bat, marrazten

Gizarte Etxera hurbildu zen jendea oso pozik egon zen. Hona hemen Sustriak guraso elkar-teak beraien webgunean idatzitakoa: “Plazer handia izan da, bai begientzat, bai belarrientzat eta baita ere bihotzarentzat Maite Mutuberriak oparitutako saioa. Helduok, haurrak, euskaldunok, belarrimotzak... denok ateratzen ginen irribarre handi batekin”.



Atera aurretik, bitan irakurri zuten liburu eta saiatu ziren guztien artean ezkutaturik dagoen guztia azaleratzen: “Ilustratzaileon lana ez da bakarrik marrazki edo irudi polita bat sortzea, gure istorioa kontatzen dugu nolabait eta horretarako ditugun baliabideak erabiltzen ditugu: koloreak, formak, konposizioa, diseinua...” eta askotan uzten dituzte obretan sartuak sekretu ezkutuak. “Leire Bilbaok ematen ditu askotan ikastarotxo hauek, eta ikusi dugu “probetxua” atera dakiokela liburuari, istorioa hurbilduz gero, aukera dagoela urteetan ikastaroak eta holakoak antolatzea, gaia mugitzea.” Ikastaroa bukatzeko, txiki guztien artean Maitek hasitako collage bat bukatu zuten eta Guraso elkarteari oparitu zion, eskolako urteurrenaren erakusketan jartzeko, “Gure eskola erdian zegoen, bera txikitzen hemen ikasi zuen eta...” idatzi zuten gurasoek.



Gerrak ez du izenik liburu

Leire Bilbaok idatzi, Maitek ilustratu, Etxepare saria irabazi eta Pamiela argitaletxeak publikatu. Liburu honetan kontatzen da Mirentxuren historia, Durangon 1937. urtean izan zen bonbardaketan. Mirentxuk bere barne mundua dauka, ume guztiak bezala. “Mundu hori azaleratzeko argazki zaharren gainean marraztu egin nuen ilustrazio bakoitzean”.

Duela bi urte bukatutako lana da. Alde historiko bat duen ipuin baten aurrean gaude. Durangoko bonbardaketa ardatz du lanak; ez da Gernikakoa bezain ezaguna, baina sarraskia egin zen bertan. Teknika desberdinak erabili dira; argazki zaharrak eta marrazkiak nahasiz. Durangoko Gerediaga elkarteak eman ditu argazkiak.

Berriketan



Zer moduz joan zen ikastaroa?

Tailerra oso ongi joan zen nik uste, ordu bete inguru iraun zuen, eta ondoren liburuak sinatu nituen marrazkiak eginez bertan salgai zeudelako. Beraz osotara ia bi ordu izan ginen bertan. Saioa nahiko dinamikoa izan zen: bidaia bat egin behar genuela planteatu nuen, iraganerako bidaia bat. Eta bidaia hori egiteko ez genuen ez makinan berezi ez jantzi bereziren beharrik: liburuak eramango gintuen iraganera eta bertako irudi eta argazkiek.

Hau izan zen egin genuena:

- Ultzamako argazki zaharrak ikusi
- Durangoko argazki zaharren bideo eta musika
- Liburuak irakurri nuen
- “Nola egin genuen liburu eta zer da ilustratzaile izatea?” Guzti hau zuzenean marrazten nuen bitartean azaldu nuen.
- Liburuak berriz irakurri genuen, baina orain denon artean, ilustrazioen sekretuak edo trikimailuak komentatuz. Umeek parte-hartze handia izan zuten hemen.
- Amaitzeko, Ultzamako argazki zaharrak erabiliz, Ultzamako marrazki bat egin genuen. Nik hasi eta jarraian umeek hartu zituzten margoak.

Etxean bezala, orduan...

Partaideak nik uste oso gustura egon zirela. Umeak oso adi egon ziren, parte hartuz eta galderei erantzunez. Gurasoak txundituta gelditu zirela esan zidaten eta bertara hurbildutako helduek baita ere. Bi gauzengatik gelditu nintzen pozik: batetik, nire lana zein den nire herrian kontatzea ilusio handia egiten didalako; bestetik, neska-mutilekin gerra bezalako gai latzaz normaltasunez hitz egin daitekeela ikusten dudalako saio hau egiten dudan bakoitzean.

Liburu aspaldiko kontua da, zertan zaude lanean orain?

Beste proiektu batzuetan sartuta nago. Testu liburuak egiten ditut, eskolatan erabiltze diren liburuek lan handia ematen dute! Bestetik, nire proiektuetan ere ari naiz, poesia liburu bat ilustratu, album-ilustratu bat dut eskuen artean... gustatuko litzaidake proiektu hauek aurtan aurkezte.

Hemen zure txokoa izango duzu... Aizu Maite, zer esango zenioke “5 minututan egindako marrazkia dirudi” edota “hau ume batek egindako marrazkia dirudi” esaten duen jendeari?

Saiatzen naiz azaltzen marrazkian azaltzen den elementu bakoitza bere zergatia duela. Marrazten hasi aurretik buruari hamaika buelta ematen dizkion, istorio hau nola kontatu dezakedan, nola ulertu dezake irakurleak marrazkien bidez istorioa... Pentsatzea da askotan lanik zailena, marraztea baino zailagoa. Ideia argi izanda, teknikara pasatzen naiz, ea zein izan daitekeen modurik onena istorioa garatzeko; kasu honetan argazki zaharrak aukeratu nituen, baina beste edozein elementu erabili daiteke, azkenean, ikerketa lana dago hor ere.



Txokolate kietsa (*)

Maria Luisa Olaetxeak, Urritzako Arotzeneko alabak, bere etxeko istorioak, gurasoengandik jasotakoak, ongi gordeak ditu eta ongi aski kontatuko dizkizu. Behin baino gehiagotan kontatu izan dizkigu bere birraitatxiren pasadizoren batzuk. Guk miatu ere bai paperetan zenbait zertzelada. Joxe Manuel zuen izena eta deiturak, berriz, Jauregi Beramendi. Eta Latasan jaioa zen 1858. urtean.



Zarrantz. Eliza eta Luxenea eta tartean maistarretxea, ttiki-ttikia.

Hiru aldiz ezkonduakoa, lehenik Erasoko Bernarda Arangurenekin, 21 urtetan, eta Zarrantzko *Luxeneko maistarretxean* bizitu ziren. Bost seme-alaba izan zituzten, jaio behintzat hala jaio ziren: Margarita, Martin Joxe, Martina, Francisca eta Miguel Joxe, 1883 eta 1890 artean jaioak, bat bestearengandik hurbil.

Ondoren, alargundu eta urteetara, nahiz umeak haziak izan, andre bila hasi zen. Baita topatu ere, Urritzara egin baitzuen salto. Seme-alabek kontent ez eta hona eta hara, denak alde egin zioten. Andrea, Urritzako *Aizkorben bentako* alaba zen: Juana Maria Aizkorbe Garaikoetxea, hiru umeen ama: Joaquina, Benita eta Miguel Martiarena Aizkorbe, 23, 18 eta 15 urtekoak. Urritzako maistarretxe batean bizi zen eta hara etorri zen Joxe Manuel.

Ezkontza hau 1910. urtean (1910-01-17) izan zen; ordurako 51 urteko gizona zen Joxe Manuel eta Juana Mari, berriz, 53koa.

-A esta mujer le apodaban "La torera" -hala esan digu Maria Luisak.

Hiru urteren buruan hil zitzaion andrea, 1913ko martxoaren 15ean. Baina Joxe Manuel, gizon trebea eta ausarta, txispa handikoa, eta era berean errespetu handikoa, ez zen kokildu. Laster bota zion begia *Etxeberriko* Martina Antsorena Antsorena neskazaharrari. Ondo-ondoan zuen, hanka mugitzea aski. Hala ere, lutoa pasatzea utzi, bi urte, eta ezkondu ziren.

Oraingoan, etxaldeko alaba hartu zuen andre-

tzat, hori bai, umeak izateko zaharrexkoa. Hala ote? 50 urte zituela kontatu dit Maria Luisak. Bai, gure Joxe Manuel suertearekin zebilen, gora ari zen beti, maistar Zarrantzen eta gero Urritzan, baina azkenean, etxalde handi batera.

Horrela bada, bri-brau batean ezkondu ziren, 1915eko apirilaren 7an. Ez zegoen denbora galtzerik zerbait egitekotan, eta baita egin ere. Andreak bazituen 50 urte baina gure Joxe Manuelek ume bat egin arazi zion. Ez zen gero marka makala. Hala esaten digu Maria Luisak bere birraitatxik esaten zuela: Niri medaila bat eman beharko lidakete adin horretako andrearekin ume bat izateagatik.

Dena dela, opari ederra ekarri zuen *Etxeberri*. Hura poza etxe hartakoa, segida izanen baitzuen, hura alaitasuna! Andreaken ama, muttikoaren amatxi ere, bi begiak aterata haurrari begira, nekatzen ez. Eta beti bere begiradapean Joxe Joakin. Eta hau koxkortzen-koxkortzen; eta amonak, egun batean, Maria Luisak kontatzen digunez: "La abuela le dio chocolate hirviendo y se murió. No estaría igual muy bien de la cabeza la abuela, era mayor y ...se murió, cuando tenía unos mesicos".

Orduan bai goitik behera erori zela Joxe Manuelen bizinahia. Nahigabe handiagorik ez zezakeen izan, etorkizuna amildegitik behera. Amatxi, txokolatea eta haur ttikia; etxearen etorkizuna.

Tragedia handiagorik ezin. Orain ehun urte.



Maria Luisa Olaetxea Elizondo, Urritzako Arotzeneko etxekoandrea.



Urritza. Etxeberria aurrean eta atzean, itsatsia, bere maistarretxea, zaharberritua.

Oharrak

1.-Joxe Manuelek aita Urretxukoa izan behar zuen noski. Maria Luisak hala esan zidan, nahiz eta, zenbait paperetan, Zumarragakoa dela jarri, baina ez denetan.

2.-Joxe Manuel, urte frankoz Imotzen zinegotzi ibili zen.

3.-Gaur Joxe Manuelez zenbait gauzatxo kontatu ditugu. Inportanteenak. Hala ere baditu beste kontu franko. Eta gainera bitxiak. Beste noizbaiterako utzi ditugu. Aukera izanen ahal dugu!

4.-Hirugarrenez ezkondu zenean, Joxe Manuelek 55 urte zituen eta Martinak 47 eta ez 50, hala diote paperak.

5.-Haurra, ezkontzerako bidean zetorren, Joxe Joaquin 1915eko maiatzaren 16an jaio baitzen.

6.-Haurra, hil zenean, 4 egun besterik ez zituen. Eta

heriotza-agirian jartzen du ahul jaio zelako hil zela. Zein ote da egia? Jendearen esanak ez dira beti egia izaten baina paperetan ere gezurtxoak ez direnik sartzen ezin uka.

7.-Joxe Joakin Jauregi Antsorena hiltzean, Urritzako *Etxeberrikoak* oinordekorik gabe gelditu ziren. Baina, segida eman behar zitzaion etxeari eta berehala Aldaztik senar-emazte gazte batzuk ekarri zituzten: Pedro Miguel Betelu Zubillaga eta Micaela Zia Arrarats, haur batekin. Gero, hemen Urritzan, familia handia hazi zuten. Geroztik, beti daude etxe honetan Betelutarrak.

Garai hartan etxeari segida ematea inportantea zen. Berehala betetzen ziren. Orain, berriz, zoritxarrez, husten ari zaizkigu. Irakurle, begiratu diozu zure herriari? Zenbat etxe huts dituzu herrian? Konta, konta!

Hiztegia



-KIETSA (KIRATSA): amargo. Gure alderdian eta Iparraldean ere esanahi bera du. Gipuzkoa eta Bizkaian beste esanahi bat du.

-ISTORIO. Istorioak gauza batzuk dira eta historiak beste gauza "serioagoak" eta inportanteagoak.

-BIRRAITATXI, BIRRAITONA: Bisabuelo.

-KOKILDU. Izutu.

-ZERTZELADA, XEHETASUN: detalle, pormenor; precisión.

-“ume bat egin arazi zion” Norbaiti ez zaio gustatuko esateko modu hau. “Matxismoa” aipatuko du. Nik hala entzun izan dut askotan, eta jarri egin dut. Urritzan ere garai hartan hala esanen zuten. Ez dezadala okerragorik jarri!

-AMILDEGIA. Amildu edo anbeldu hemen ere ibiltzen den hitza da, despeñar. Amildegia, despeñadero.

-OINORDEKO: heredero.

Xaloea Telebista ikustea gure esku dago

Euskaraz telebista ikusteko aukera herritarron esku egon liteke. Jakina denez, lehengo hilabetea Xaloea Telebista Iruñerrian hasi zen euskara hutsez emititzen, eta aldizkarian argitaratu genuen posiblea izango zela gurean ere ikustea. Artikulu hau egiteko egindako elkarrizketetan konturatu gara udal eta herritarron esku egon daitekeela ikusteko aukera.



Hauxe da egoera, Xaloaren seinalea ailegatzen zaigu baina modu apalean. Eskualdea menditsua denez antena txiki batzuk daude, batzuk udalenak dira eta beste batzuk oraindik ez dakigu norenak diren. Baime-nak eta mozioak aurkezten badira, lortzen ahal da etxeetan normaltasun osoz beste kate bat euskaraz ikustea.

Joseba Igarabide Baztango komunikabide ho-nen zuzendaria da, eta duela hilabete batzuk Iruñean emititzeko lizentzia lortu zuten. Iruñerriaz gain, Merindadean emititzeko aukera ere badute. Ultzamaldea zonalde horren barruan sartzen da. Telebista hau ikusteko, "udalek eskatzen ahal dute baimena, ez litzateke arazo handia izanen kontu hori konpontzea. Nafarroako Gobernuaren aldetik borondate ona sumatu genuen, zonaldeko udalek nahia, gogoa edo asmoa azalduz gero lortu ahal izango litzateke". Urritzako terminoan dagoen antena Imozko Udalarena da, adibidez.

Gure eskualdea menditsua denez, uhin elektromagnetikoen hedapena ez da erraza, eta zenbait herritan ez dira ailegatzen modu onar-garrian. Larraintzar, Ziaurritz, eta Udaben dau-den antena txiki batzuei esker lortzen da eskual-dean telebista ondo ikustea. Eta antena horietan dago gakoa Xaloea ikusteko. Gakoa, lehen esan bezala, antenan eta bere jabetzan dago. Askotan publikoak dira Udabe-Urritzako antenaren kasuan, Imozko udalarenak dira, eta beste kasu batzuetan pribatuak dira. "Publikoa bada baime-na eskatuz edo mozioak aurkeztuz lortzen da; eta, pribatua bada, jabeekin hitz egin behar da zein baldintzetan jarri ahal den". Joseba Igarabi-de Xaloako zuzendariaren ustez, posiblea izan daiteke: "udalekin adostu beharko litzateke, es-

kaera bat egin, nolabait ere esan dezakegu es-kubidea bermatua dugulako Iruñerrian eta bai-ta Merindadean zabaldu ahal izateko seinalea. Berez, lizentzia, orain, bermatua eta lortua, Iruñerrian dugu. Baztanen eta Bertizaranan emiti-tzeko holako eskubide zabalpen bat dugu Merin-dadean ere emititzeko".

Pedro Alkasena Beltzuntzen bizi da, eta es-kualdean egiten du lan batez ere "etxe gehienek bere antena" dutelako. Lan handia duela dio, digitalarekin egin diren aldaketak "programatu gabe eta denak batera" egin dira, bere ustez. "Eskualdeko zenbait lekutan ikusten da Xaloea, baina arazoekin". Elomenditik (Monreal) emiti-tzen dutena da gurera ailegatzen dena. Ezkaba mendiko antenak, hurbil baditugu ere, Iruñerantz daude kokatuak eta ez dute gure eskualdera "begirutzen".

Xulapaingo teknikariari galdetu diogu ea po-siblea izanen litzatekeen Ezkaba mendian ante-naren bat bueltatu edo beste bat jarri eta "oso zaila" dela erantzun digu, "uste baino konplexua-go" den lana delako. Ezkaba mendiko aukera zaila bada ere, badago aukera euskarazko te-lebista hau ikusteko, zonaldeko antena txikiak erabiliz.

Informazioa biltzen jarraituko dugu, baina es-kaerak eginda, badirudi lortu ahal izango dugula Xaloea telebista gurean ikustea. Argi gera dadi-la aldizkari honetatik ez dugula telebista ikus-tearen "apologia" egiten, betiere nahiago dugu mendira ateratzea, kirola egitea, dantza egitea edota liburu on bat irakurtzea, baina tira, eskubi-deak eskubide dira!

Lur Gil

**Pulunpe aldizkariko
eta Esan Erran irratiko
kazetari berria**

Zer moduz zure lehenengo egun hauek?

Erraza izan da bai lanera bai eskualdera ohitzea. Lantoki ederra dugu Jauntsaratsen, eta gustura nago bertan. Lehenengo kontaktua ere izaten ari naiz jen-de askorekin, dei asko egin, gai berri asko landu... Erritmo altuan gaude lanean, baina lan eskertua da; deitzen dudan jendearen partetik animoak jasotzen ditut lehenengo egun hauetan, eta horrek laguntzen du lan bati ekiterako orduan.

Ez zenuen kazetaritza ikasi, nolatan bururatu zitzazun kazetaritzan sartzea?

Aldatzea gustatzen zait niri, bizitzaren arlo guztie-tan. Ikasketei dagokienez batxilerra zientzietatik abiatu nuen, eta gero letretako gradua egin nuen unibertsitatean, Euskal Filologia. Karrera amaitu-ta, ordea, kazetaritzari lotuago ibili naiz. Gasteizko Hala Bedi irratan egon nintzen bi urtez, eta gero Berria egunkarian bekadun hartu ninduten. Orduan konturatu nintzen euskaraz gain kazetaritza ere gustuko nuela, eta biak uztartzea eskaintzen zidan Berriak. Kazetaritza baino gehiago, inork kontatuko ez lukeena kontatzea da gustatzen zaidana; nik uste dut horregatik joan nintzela Ukrainara ere, gerraren inguruko erreportaje eta elkarrizketak egitera Berria-rendako. Afizioa ofizio bihurtu dut orain.

Zure ustez zer ekarpen egiten ahal diezu Pulunpe eta irratia-aren proiektuei?

Bi kazetari lanean egonda bi ikuspuntu ezberdin dauzkagu, eta oso aberasgarria da hori edozein hedabiderendako. Berria egunkarian eta Hala Bedi irratan egon izanak esperientzia eman dit, eta gau-za berriak ezagutu eta egiteko grinak ere ziur naiz ondoriorik izango duela Pulunpen eta Esan Erran irratan. Niri gainera, kanean egotea ere gustatzen zait, leku batetik bestera mugitzea albistearen bila; eta kalitatezko kazetaritzaren aldeko apustua egiten dut, artikuluak ongi lantzea gustatzen zait, ahalik eta informazio gehien ateratzea edozein albistetatik, eta informazio guzti hori landu ondoren, era argi eta or-denatuan eskaintzea irakurle zein entzuleari.

Eta kazetaritza ari garela, nola ikusten duzu kazetaritzaren egoera gaur egun?

Kazetaritza tradizionala hiltzera kondenatuta dago. Paperezko egunkariak saiutzen dira ahalik eta mo-durik "politenean" argitaratzen, koloreekin, argaz-kiekin... hala ere, errealtate bat da gero eta jende gutxiagok erosten duela egunkaria, eta gero eta gehiagok internet bidez irakurtzen du. Internetek, ordea, ez dio inongo egunkariri diru sarrerarik ema-ten, eta kazetariak mantentzeko dirua behar da. Ma-sa-hedabideek, gainera, interes politiko konkretuei erantzuten diete; eta beraz, kazetariak euren kali-tatea adierazteko askatasuna murriztua da. Bada aterabiderik, ordea, eta nire ustez herri hedabide alternatiboek daukate kazetaritzaren biziraupena-ren giltza. Hauek dira benetan herritarren beharrei erantzuten dietenak, eta albisteak kaletik hartzen dituztenak. Ez daude inongo kanpo injerentziaren menpe, eta horrek kalitatea eskaintzea ahalbidetzen du, beste inon agertzen ez dena kontatzeko aukera, kazetariaren ahalmen osoa irudikatzen dute. Hau da benetako kazetaritza, eta ofizio hau salbatzeko ka-zetaritzaren erroetara bueltatu behar dugu; hainbat hedabidek hautu hori hartu dute jada, Pulunpe eta Esan Erran tarteko.

Filologoa zaren heinean nola ikusten duzu euskararen egoera zonaldean edota Nafarroan? Zer egin liteke?

Ez da denok nahi genukeena, baina ez da txarra ere. Adin tarte bat dago, bai Nafarroan bai eskual-dean, euskararen atzerakada jasan duena. Orain datozen belaunaldiak, ordea, euskararen biziberri-tzearen arduradunak izango dira. Jende asko dago, nahiz eta euskara jakin, etxean eta lagunartean er-daraz ari dena, inguru erdaldunaren ondorioz. Ingu-rua diodanean etxea, herria, taberna, eskola, kartel ofizialak, telebista... esan nahi dut. Hori guztiz euskalduna ez denean, zaila da euskaraz bizitzea. Hala ere, belaunaldiz belaunaldi euskaldun gehiago sortzen ari da, eta ingurua euskalduntzen. Hori da euskarak aurrera egiteko bermea, ni baikorra naiz.

20 urtez abiadura handiaren aurka borrokan

Xexu Villaro ziaurritzarrarekin hitz egin dugu garapen txikitzailearen aurkako taldeen eta Mugituren inguruan. Larraintzarko Bentara gogotsu hurbildu ziren hitzaldia eskaintzera 20 bat pertsonaren aurrean. Euskal Herrian gizarte mugimenduen oparotasun historikoari gainbegirada interesgarria eskaini zuten.

Egingo al diguzu hitzaldiaren laburpen bat?

Julio Villanueva eta biok eskaini dugun hitzaldian zenbait kontu desberdinen inguruan hitz egiten dugu: desobedientziaren historiari begirada, borroka teknika desberdinak, abiadura handiko trenaren kalteaz, eragin soziologikoei buruz ere hitz egiten da...

Hilabete honetan zenbait albiste jaso dugu AHTaren inguruan, ezta?

Urkullu lehendakariaren hitzaldi bat eteteagatik epai-tuak eta absolutuak izan gara Mugituko zazpi lagun. Albiste ona izan da, behingoz. Horretaz gain, Gipuzkoan AHTaren obrak gelditu dira Hernani eta Astigarraga artean arazo desberdinak direla medio. Espainiar Estatura begiratzuz gero, Mozal Legearen onartzea aurkitzen dugu. Desobedientzia eta ekintza zuzena modu zilegiz sustatzen duten herri-kolektiboak kriminalizatuko ditu lege horrek. Auskalo zer ekarriko duen horrek.

Mugimendu hauen hasierara begira jarriko al gara?

Gure herrian hamaika kolektibo eta herri mugimendu sortu dira aspalditik; halere, Leitzarango autobidearen aurkako mobilizazioetan jarri dugu gure ibilbide historikoaren abiapuntua, asanblada horretatik sortu baitzen geroago trenaren aurka egingo zuen taldea. Autobidearen Aurkako Komitetik, Gipuzkoatik eta Bizkaitik zetorren jendea, Superportuaren aurkako borrokatik azken hauek. Urteak aurrera joan ahala, jendea aldatuz badoa ere, tinko jarraitzen dugu. 2001. urtean AHT Elkarlana plataforma sortzen da kolektibo, sindikatu eta beste eragile batzuen partaidetzarekin. Ikuspuntu zabala batetik lan egiten zen, eredu sozial orokorrari kritika eginez eta antidesarrolismoa sustatuz lan egiten zen.

Zergatik sortu Mugitu?

2010. urtean sortu zen Mugitu. Urteak aurrera joan ahala borroka beherakada handia jasan zuela konturatu ginen; 2006. urtean hasitako obrek aurrera egiten zuten, ezker abertzalearen inplikazioa gutxitzen joaten zen, estrategia argi baten falta zegoen... Gauzak horrela, bultzada berri baten beharra sentitu zen, desobedientziaren bitartez egituratuko zen bultzada. Beste ikuspuntu bat bilatu genuen, ekintza lasaigoak eginez, parte-hartzaileagoa bihurtuz, hirietako jendea erakarri... nolabait desobedientzia "suabeago" bat bilatuz; multa faltuak kotxeetan jarri, erreken margotzea eta holako ekintzak egiten... Jende gehiago parte-hartzeko nahian. Ekintza mota horiek ondorio legalak ekarri dituzte, nola ez.

Adibidez, Tartalariekin elkartasuna adierazteko Nafarroako Diputazioko balkoian bi pertsona kateatu ziren, eta ekintza horren ondoren isunak ailegatu ziren 33 pertsonari, inolako identifikaziorik egin gabe.

Zein da zuen iritzia, Nafarroako Trenaren obren egoeraz?

Zentzugabekeria izugarria da. 60 kilometroko trenbidea egiten ari da Kastejon eta Kanpanas lotuko dituen. Bide horren zati bat bukatua badago ere, auskalo noiz jarriko duten martxan. Beste zati bat oraindik obretan dago. Guk egiten dugun irakurketa hau da; oraingo egoera sozio-ekonomikoa kontuan izanda, nola da posible urtero-urtero dirua bideratzea holako zentzugabeko proiektu batentzat? Lehen zentzurik ez bazuen, are gutxiago oraindik; inolako konexiorik ez duen tren, txikitzailea... Gure ustez, bertan behe-geratu behar den proiektua da eta diru gehiago ez ematea holako proiektuetarako. Euskal Herri osoan, 10.000 milioi euro gastatuko da, eta Nafarroan urtero 40 milioi gastatzen da lanetan.



Auntzen eseniakin afaltzen oittuta (rapeatuz)

Antonio Zabalak bilduta, *Auspoa* bertso bilduman, 56. liburuan, hain zuzen, Fernando Amezketarraren hainbat kontu eta bertso dakartza. Horien artean bere ardiekin pasatu zitzaiona kontatzen da. Honela, hitzez hitz: *Pernandori ardiak baitu zizkioten Orendainen. Zeñenak ziran jakin zutenean, deitu zioten Pernandori Orendaingo erri-etxera. Bidean zioala, norbaitek galdetu zion: -Nora zoaz orren goiz, Fernando? Ta Pernandok erantzun zion:*

Oreindaina noa deituta, Gure ardiak omen daude baituta. Ez daude preso egoten oituta... Jabeak bere gauzak nai ditu-ta Beren billa noa ondo estututa Baje onek ez du utziko familia goituta.

Noizbait kontatu genuen iruraia edo iguraia soro eta larreak zaintzen zituena zela. Baita nola azienda bahitu edo sekuestratzen zuen ere berak gorde beharreko dermioan sartzen zenean, edo norbaitek sutarako edo beste edozertarako arbolak baimenik gabe botatzen zituenean.

Etxalekun, Adrian Aldaregia Igeltz zenak kontu bera edo berdintsua kontatzen zuen, Fernando Amezketarrarena, alegia, baina honetan ardien orde ahuntzak ziren. Ahuntzak Goizuetakora sartu omen ziren eta hemen iruraiek bahitu eta Fernando bahitura ordaintzera joan behar. Herriko agintariei zuzen zuzenean kontatzen die zer nolako estutasunean dagoen eta, mesedez, ahuntzak emateko deus ordaindu gabe: *Baldimes emain al ttuzte kupittuta.*

Hona hemen Adrianek kontatzen zuen errimatuzko iharduki osoa:

Hemen heldu naiz aittuta, Amezketako auntzek hemen daudela baituta. Hango atsoan karraxik aittuta, Auntzen eseniakin afaltzen oittuta. Baldimes emain al ttuzte kupittuta.

Bi aldiz **aittuta** ageri da baina hau bertsoa ez denez...Lehen bi ahapaldietan gertatua kontatzen du, hurrengo bietan errukia sortzeko egoera kontatzen die eta azkenekoan, ongi ulertu izanen dutelakoan, besterik gabe, kupida eskatzen die, hau da, ahuntzak itzultzeko deus ordaindu gabe: Baldimes emain al ttuzte kupittuta. (Euskara batura, hitzez hitz bihurturik, "*Baldinbez emanen ahal dituzue kupituta*")

Hemengo euskaraz "entzun" ez dugu erabiltzen, beti "aditu". Kupitu ere erabiltzen dugu. Kupituren ordaina ere bai, **urrikitu**.

Eta **ohituta** ere bai, hemengo hitza da nahiz eta orain askok erdararen kalko bat erabiltzen duten, akostunbratu. Hau erabat atzenezko moduko hitza da.

Eta, hitzak gora hitzak bera, baina hizketa formala erakusten da batez ere eskoletan. Hortaz, hitz ez formalak, galduz galduz doaz. Horietako bat dugu **baldimes** edo **baldinbes** hitz egoki eta polita.

Gaurkoz aski izanen dugu. *Baldimes* hitzak ikasiz joanen ahal gara!

Ea hurbilenean gure herriko ostatuan elkar ikusten dugun, ardo xorta bat edan bidenabar. *Baldimes* ere, ostalariak edukiko ahal du nik hainbat goratzen dudana ardo frexko hori!

HIZTEGIA

IRURAI. Mendi zaina edo horrelatsukoa.
BAHITU: Preso hartu, sekuestratu, enbargatu.
IHARDUKI: hizketaldi.
AHAPALDI: Bertsoetan eta poesietan, lerro bakoitza.
BALDINBEZ: Iparraldean baldinba ibiltzen dute. Guk baldinbes (baldinbez). Eta bakarrik ere ibiltzen da. Etsenplu bat:
-Bai, bai, hori nik eginen dut -Eta erantzuna,
-Baldinbes! (Ez baita hainbesteko eginbeharra agindutakoa).

IRURAIK edo IGURAIK

Alderdi honetan izan diren zenbait irurai edo igurai:

Francisco Gartzaron Ilarregi, Oskozko *Maritone-beitikoa*.
Pedro Miguel Beloki Gerendiain, Etxalekuko *Beltranekoa*.
Timoteo Lopez Agirre, Berueteko *Goienetxeakoa*. Hau soldatapean.
Joanes Etxarri Goñi, Arrarasko *Tranpakoa*.



KIROIAK

Ultzamako I. Duatloia maiatzaren 9an



Beste kirol eskaintza bat eskualdeko kirolarientzat. Askok dira hemen ditugun kirolariak, eta asko ere abuztuko urteroko triatloian parte hartzen dutenak. Hauek izan dira bereziki beste kirol proba hau proposatu dutenak: duatloia.

Ultzamako Hamalauak bat I. duatloia izena du lasterketa berri honek, oinezko korrika eta txirrindulari bidezko lasterketa izango da Ultzaman zehar. Maiatzaren 9an izango da, larunbatean, Larrainzarko Ultzama pilotalekutik hasita eta bukatuta. "Hamalauak bat" izena berreskuratu dute antolatzaileek, Ultzamako ia hamalau herriak zeharkatuko baitira bizikletaz. Mankomunitateko kirol teknikari den Asier Uriartek dioenez "edonork parte hartu ahal izateko moduko lasterketa izango da". Sprint motakoa izango da proba, distantzia motzekoa alegia, eta errepideko zein mendiko txirrindularekin egin ahal izango da.

Albiste ona da hau abuztuko triatloian igerian juxtu ibiltzen direnentzat; izan ere, duatloiarik oin-

ezko lasterketarekin emango zaio hasiera, ondoren txirrindularen tartea izango da, eta azkenik korrika berriz ere. Distantziak ezberdinak dira kategoriaz kategoriaz:

Benjamin aurrekoak (2005-2008): 250m korrika, 1km txirrindulaz eta 125m korrika.

Benjaminak (2003-2004): 500m korrika, 2km txirrindulaz eta 250m korrika.

Kimuak (2001-2002): 1km korrika, 4km txirrindulaz eta 500m korrika.

Infantilak (1999-2000): 2km korrika, 8km txirrindulaz eta 1km korrika.

Kadeteak (1996-1998), juniorrak (1994-1995) eta helduak: 5km korrika, 21km txirrindulaz eta 2,5km korrika.

Federatuta egon beharko dute parte-hartzailerik guztiek, helduen kategorian izan ezik. Hauei egun bakarreko aseguru eskainiko zaie, kirolari guztiek kirol aseguru izan dezaten. 20 euroko prezioa izango du izen-emateak kirolari federatuentzat, eta federatu gabekoentzat 25 eurokoa. Izan ematea ez dago oraindik irekita, apirilaren 7tik aurrera irekiko da horretarako aukera. nava-rratriatlon.com webgunearen bidez egin beharko da izen-ematea.

Antolakuntzan laguntzeko boluntarioak ere behar dira proba aurrera eraman ahal izateko, eta horretarako zein informazio gehiago lortzeko Ultzamako Kirol Zerbitzuko telefonoa utzi du antolakuntzak: 626773463.

Eta bitartean, Errugbian...



Hilabete honetan hedabideetan eta kalean gehien hitz egin dena, Osasunaren egoerari buruz izan da; saldukeria, partiden salerosketak, Gobernuaren lege eta laguntza ilegalak... "Kirol erregearen" irudia geroz eta txarragoa da, eta askoren ustez, arrazoi osoz. Bien bitartean, Errugbia bezalako kirol bati begiratzea besterik ez dago ohartzeko zeinen egoera tamalgarrian dauden, eta are gehiago emakumeen taldea bada. Irudian ikusten da urtean 25.000 euro ordaintzen duten zelaia nola garbitu behar duten. Argazki lotsagarri hau oraindik ere lotsagarriagoa bihurtzen da jasaten duten egoera argitara ematen dutenean: Ultzamako jokalarik batek esan digu astebururo haiek garbitu behar dituztela aldagelak, aurreko asteburu batean, adibidez, lokatzean jokatu ondoren ur hotzarekin duxatu behar izan zutela... Gogoratu dezagun Nafarroako Errugbi Federazioak Gobernuari eskatu ziola guztion artean salbatutako Osasunaren zelaia eta instalazioak erabiltzen uztea, Taxoareko 8 zelaiaetatik 1 errugbian jokatzeko uztea.

Badakizue zein izan zen erantzuna, ezta?

Edurne Jaunarena, Erbitiko Fisioterapeuta

Hilabete batzuk aritu zara zonaldean masajeak ematen, ezta?

lazko ekainean bukatu nituen ikasketak, eta bailara itzuli nintzenean lagunak hasi ziren masajeak eskatzen; esku-ohet bat nuenez, etxetik joaten hasi nintzen. Ahoz aho hasi zen berria zabaltzen eta lagun batek besteari esaten, eta jendea deitzen hasi zen. Kartelik ez nuen paratu ziur ez nengoelako nola antolatu nire burua gai honekin. Ekainean bukatu banuen ere, oporrak zirela-eta titulua ez zen ailegatzen, eta, azkenean, abuztu-iraila arte ez nintzen hasi.

Kanpoan ikasi zenuen, ezta?

Lleidan egin nituen ikasketak, Tuterara joateko aukera banuen, baina kanpora ateratzea aukeratu nuen. Kataluniara joan nintzen fisioterapeutak ziren irakasleak zeudelako. Oso gustura egon nintzen Lleidan: hiri txikia da eta ez du ezer berezirik, baina gustura egon nintzen. Egia esan, Gartzaron eta Erbititik ibili naiz masajeak ematen, batez ere, eta gero Iruñetik ere deitzen naute. Orain Iruñean hasiko naiz lanean.

Zer dela-eta?

Nafarroako Fisioterapia Eskolan bazegoen eskaintza bat, eta bertara deitu ondoren azaldu zidaten aukera ona zegoela elkarte bat sortu eta lanean hasteko. Itxi zen klinika bat irekitzeko aukera nuen, bazkide ohiek negozioa utzi eta orain berriz irekitzeko aukera zegoen. Ideia ona iruditu zitzaidan eta bertan sartu gara.

Enpresa bat sortu duzue...

Bai, lehenengo momentuko zalantzak alde batera utzita animatu gara Aixtingo jabea, beste fisio bat eta hirurok. Ez dugu diru asko jarri, lekua ezaguna da, materiala badugu, bezeroen kontaktuak daude... Jadanik hasi gara bezeroak deitzen dena berri martxan jartzeko. Arrotxapea auzoan dago klinika.

Zein zerbitzu eskaintzen duzue klinika horretan?

Fisioterapia terapia "normala" eskaintzeaz gain, kirol eta arnas-terapiak ere erabiltzen ditugu: koloreko benda horiek erabiltzen ditugu, nola ez! Teknika berri ezberdinak egiten ditugu, denetarik. Atzo bertan hasi nintzen lanean; egia esan arratsalde osoan ez zen inor sartu! (Kar-kar) Behinik behin publizitatea egin nuen... Fisioterapia Barial deitzen da lekua.

Zein lesio mota aurkitzen da orokorrean?

Sorbalda eta lepo lesioak izaten dira batez ere. Gehien-gehienak lan munduko lesioak eta jarrera lesioak dira. Halere, azkenaldian jendea telefono mugikorrarekin jarrera txarrean ibiltzearen eraginez lesio asko sortzen ari dira. Nabari-nabaria da, lepoa eta sorbalda gaizki jartzen dugulako telefono, ordenagailu, tablet eta holakoekin ibiltzerakoan. Esango nuke estatistikei begira jarritz, bezero gehienak holako gaitzekin datozela.

Zonaldean egindako lanetan, lesio desberdinak aurkitu dituzte, ezta?

Gehienak lan kontuak izaten dira; nekazaritza lanek, fabrika edo kamioian egunero mugimendu berdinak egiteak sortzen dituzte arazoak. Halere, landa eremuan jendea gehiago mugitzen da hirian baino; ez dute mugimendu bera egiten momentu oro... Halere badaude arazoak hemen ere, ez pentsa; sobera indar egin duen bat, edo min hartu duena pentsu-zaku handiegi bat hartzeagatik...

Zorte on abentura berri honekin!

Halere, azpimarratu nahiko nuke, bezeroak eskualdean hartzen jarraituko dudala.



Eskolatik telebistara, erratza baten gainean?

Basaburuko eskolan irakasle izan dute Zuriñe Hidalgo ikasturte hasieratik. Urte berriarekin batera, proiektu berri batean hasi zen; ETB 1 telebista kateko “Sorgintxulo” saioko aurkezle berria da orain. Horretaz gain, nola ez, Hesian taldeko abeslaria izaten jarraitzen du. Eta artistaren bizitza ziurregia ez denez, irakasle oposizioak ere prestatuko dituela dio, bejondeiola!

Duela hilabete inguru ETBtik dei bat jaso zuen: denbora luze baten ondoren haurrendako programazioa itzuli behar zela eta, saio berri bat sortu nahi zutela. “Aurkezlea ni izateko aukera eskaini zidaten”. Hasiera batean eskola eta telebista bateragarriak izango zirela pentsatu bazuen ere, “geroago konturatu nintzen ez zela posible, eta asteak eta asteak eman ditut buruari bueltak ematen, gaizki pasatzen, zer egin erabaki ezin”. Oianzabal eskola, benetan “zoragarria” dela dio Hidalgo, baina bizitza honetan erabakiak hartu behar dira eta telebistara joatea erabaki zuen. Ikasturte hasieratik bigarren mailakoen tutore eta Lehen Hezkuntzan musika irakasle lanetan aritu da. “Oso giro hurbila eta atsegina dago eskolan, haurrak zoragarriak dira, hemen geratuko nintzateke”, dio Zuriñek.

Haurren programazioa gaur egun, ETB3n dago, eta marrazki bizidunetara mugatzen da. Betizu saioaren ondoren ez da egon holakorik eta horrelako beste zer edo zer antolatzea erabaki zuten telebista euskaldunaren kudeatzaileek. Telebistan lanean ibiltzeaz gain, neska zizurtar hau Hesian talde ezagunaren abeslaria da. “Musika beti dago hor, ez dezagun ahaztu”. Kontzertuak eta grabazioak bateratuko ditu.

Hori guztia gutxi balitz, denbora izanez gero, oposizioetara aurkeztu nahi du bere burua Zuriñek, Erki-degoan eta badirudi Nafarroan ere, izango dira eta. “Ea denbora pixka bat ateratzen dudana, aurkeztzen naizen lehenengo aldia izango litzateke, beraz proba moduan planteatzen ditut”. Neska honentzat eguna besteentzat baino luzeagoa ote, zorte on Zuriñe!

Sorgintxulo, irudimen eta umorearen txokoa
Urtarrilaren erdialdean estreinatu zen telesaioa. Ekoizpen etxeak argitaraturiko komunikatuan ziotenez, goizeko iratzargailua izango da Sorgintxulo, izan ere, “Euskal Herriko neska eta mutil guztiak euskaraz, mimoz eta umore onez esnaraziko dituen saioa goizeko zazpietatik bederatzietara eskainiko da”. Euskal izaera eta ondarea oinarri hartuta, magiaz eta umorez zipriztinduko ditu ETB1eko goizak. Horretaz gain, ETB3ko programazioan ere topatuko



Zuriñe eta eskolako sorgintxo batzuk, olentzero festan.

ditugu saio berri honen edukiak ere. Hiru pertsonaia izango dira ‘Sorgintxulo’ saioaren gidariak, nor baino nor xelebreagoa: Zuri sorgina alaia, zuzena eta gozoa da; Tor Magoa apur bat baldarra da, baina denetarik daki; eta Gorritxo galtzagorri jostalari eta bihurriak etxeko txikienak bereganatuko ditu.



“Hegalak astinduz”, Hesianen disko berria lazko bukaeran aurkeztua, taldearen seigarren diskoa dugu hau. Maitasuna eta gai pertsonalagoak aurkituko ditu entzuleak, baina baita ere, Euskal Herriko egoera politikoa edota sozioekonomikoari buruzko gaiak ere. “Abesterakoan zertaz ari zaren eta, hori interpretatzen jakin behar duzu”, esan du Zuriñek. Entzun.com atarian aditzera eman zutenez, “oso gustura gaude azken hilabeteotako lanaren emaitzarekin”. Azken lan hau, “desberdina” dela diote, orain arte egin duten onena dela: “Estudioan sartu baino bi hilabete lehenago abestiak eginak zeuden”.



ugari dituen arren, ez da saikera bat. Berak halaxe erabaki baitu. Elkarriketa formatuan plazaratu delako bere lana. Arrazoi beraren inguruan txirikordutako elkarriketak, guztiak.

Eutsiko diogu? Galdetzen die banaka banaka guztiei. Inoiz baino gehiago sortu den garaian, azkenetan ote gauden aztarnatzeko, bere jakin-minak ase ezinda. Jakin nahi duelako nola daramaten krisiaren talka gaiztoa, sorkuntzarekin lanean modu autonomoan ari diren profesionalak. Guztiak euskalzale eta euskaldun petoak diren erdi militan-

F e r m i n Etxegoien Oñatiarraren liburu berria oso interesgarria da. 12 elkarriketataz osatua dator. Puri puriko gaurkotasunean oinarrituriko kazetari lan polita egin du, alegia. Eta saiakeraren elementu

teak diren heinean. Beraiek bereziki, krisia nola sufritu duten eta etorkizunik antzematen ote dioten beren ibiliari jakiteko. Herrigintzatik datozen profesionalen larrutan sartuko da. Euskararen aldeko profesionalak diren horien larrutan. Eta, ez noski, ez dauka, haien soldata zihurreko babespean bizi diren funtzionario manifestu sinatzaile ustezko euskalzale salbatzaile akomodatuaren iritzien goserik. Hori ez zaio autoreari interesatzen.

Hemen, hari gainean hanka puntetan dabiltzan, eta erortzeko arriskuan bizi diren euskalzale ausarten bizipenak, pozak, atseginak, eta mixeriak banaka-banaka kontatuko dizkizu Ferminek. Guztieri ahotza emanen die, eta bakoitza beretik arituko da, eta bere ikuskeratik, bere mundua ulertzeko modutik, eta, horiek ekarriko ditu orri artera idazleak.

Ander Lipus, Euskaraz bakarrik lan egiten duen aktorea. Estitxu Eizagirre, ARGIAko zuzendari eta bertsolaria. Lusitxo Fernandez, CODESYNTAX informatika enpresako bazkidea. Mari Añes Gorostiaga, Irulegi irratiko esataria. Eñaut Elorrieta, Ken 7-ko abeslaria, Miren Amuriza bertsolaria eta UHEZI-ko langilea. Hedoi Etxarte, idazlea eta KATAKRAK-eko bazkidea. Maider Unda, borrokalaria eta gaztagilea. Iban Arantzabal, GOIENA komunikazio taldeko langilea. Maia Eder Kurutxet, SKUNFUNK-eko langilea. Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga zuzendariak. Miren Agur Meabe, idazlea. Horra proposamen interesgarria!



Alex Sanvi marrazkilariaren eta Unai Iturriaga bertsolari eta gidoigilearen eskutik sortutako komikia duzue Haur Besoetakoa. Protagonistak haurrak izanik, eta marrazkilariak darabilen estiloak bestelakorik iradoki dezakeen arren, helduentzako komikia da. Gidoigileak darabilzkie txiste mota, ironia, umore beltz gaiztoa, bihurrikeria, erreferentzia, eta bestelakoak ikusirik, argi gelditzen delako nolako irakurlearentzat den egin komikia. Gainera, gure begion gazagarri, marrazkiak oso

onak dira, landuak, eta errotulazio bikainez edertutakoak. Eta itzalekin joko ugari egiten ditu. Estilo klasikoa du. Eta hizkuntza, berriz, bizia da. Oso zuzena. Erdibideko hitz apainik gabekoa. Unai Iturriagaren bertsokera bezelaxekoa. Zorrotza, eta, huntzak arbaztutako ezustez jositako umore xirikatzailez jantzia datorrena.

Haur besoetakoa, litxarrerria eta bideo-jokoen merkatu klandestinoaren buruzagia da. Mundua kontrolpean nahi duen mutiko gaiztoa. Aberats porrokatua eta sasikume amorratua. Hartarako, polizia bere esanetara dago, gu, makilkazoka hazak bezala porrokatu eta txikitzeke. Ez gaitezen altxatu, eta ez dezagun pentsatu. Banketxeak bere oinpera makurtuak dauzka. Baina, erreinu anker gotortuenak ere, zirrikituak ditu. Eta haietara joko du, AIEMAk, aita eta amen baturatik, sortutako jedeen eskubiden aldeko mugimenduak. Mundu juxtuago baten aldeko protestan.

Gaurko gizartearen kritika paralelotzat eman dezakegu komikia. Eta nire ustez emaitza atsegina eta bikaina lortu dute bien lanen uztarketan. Gozatu!





2014ko abendua eta 2015eko ilbeltza

Gure alderdian, aurreko bi hilabete horietan izan ziren
jaiotzak eta heriotzak

JAIO TZAK

ANUE
Etsain
Oier Santisteban Arce, Legarreko baltegian,
2014.12.16an, Maximo eta Izaskunen semea.

BASABURUA

Aizarotz
Aiur Amundarain Alonso, 2014.12.29an.
Errekaondo karrikan. Iraia eta Juanen semea.



Aiur bere amarekin.



Aiora eta Oier

ZORIONAK JAI OBERRIEN GURASOEI!

HERIOTZAK

ANUE
Daniel Larraia Iraizotz. Etsaingo Martixtonekoa.
2015.01.28an hil zen, 91 urtetan.

BASABURUA

Casilda Irazusta Marmol, Berueteiko Herrikoetxekoa,
2015.01.30ean hil zen.
Jose Arroki Gartzandia, Gartzarongo Apezetxe zaharre-
koa. 2014.01ean hil zen.



Casilda Irazusta



Daniel Larraia



Joxe Arroki


GURE OROIMENEAN IZANEN ZARETE



Egun-Ero
Esan Erran irratia ren
irratsaia
astelehenetik ostiralera
goizeko 10etan

OREINAK NEGUAN

Inguru hotzetan bizitzera ohituak daude oreinak, leku aparta beraz gurea haien bizitokirako. Ez dira, ordea, gehiegi gurean bizi direnak, eta azken hamarkadetan atzeraldi nabarmena izan zuten Euskal Herrian. Orain, ehizari neurriak jarrita, orein populazioa egonkortu egin da, eta 800 inguru daude Belatetik Erronkari ingurura. Negua, guretzat ez ezik, haientzat ere gogorra da, eta orein batzuk hilda agertzen ari dira Belate eta Kintoko basoetan.



ARGAZKIAK; Aizarotz Herria eta Ultzama-Arakilgo basoainak

Oreina mundu osoan atzerakada handia jasan duen animalia da. Garai batean, Ipar Ameriketara, Afrika iparraldean eta Eurasia inguruan populazio handiak bizi ziren; baina, ehizaren eta giza jardueraren eraginez, behera egin du espezieak. Hauen habitata legez arauturik, ematen du egonkortu egin dela oreinen kopurua, eta arriskuan egoteari utzi dio.

Belate inguruko basoetan ederki bizi dira, bertan behar duten guztia daukate: zuhaitzen babesa, janari aunitz eta gizakiak eragin gutxi duen lurraldea. Pagoen artean elikagaia azkar bilatzen dute oreinek, ederki bizi dira bertan; gurean, Lantz eta Anue inguruetan ibiltzen dira gehienak, ahalik eta basorik garaienetan. Negua, baina, zaildu egiten zaie urte osoan duten bizitza lasaia.

Elurrak dena estaltzen du, denbora luzez gainera, basoetako elikagai guztiak elurpean geratzen dira, eta oreinek ez dute jatekorik aurkitzen. Leku batetik bestera mugitzea ere zaildu egiten du, eta elur artean gelditzen dira bustita, hoztuta. Eguraldi txarra hurbiltzen denean, lehenbiziko elurak iri tsi eta janaria estaltzen duenean, menditik bailaretara jaisten dira oreinak, baina batzuetan elurteak ezustean harrratu eta mugitu ezinik gelditzen dira.

Hau da negu honetan orein ugari hilda agertzearen arrazoiak. Hala ere, ez da aurtengo kontua soilik, urtero gertatzen den zerbait baizik, eta ez dena gurean bakarrik gertatzen. 10 inguru dira momentuz hilda agertutakoak, baina gehiago ere izan daitezke. Hautapen naturalari dagokiola dio Xabier Azpiroz basozainak, zaharrenak edo mantsoenak hiltzen direla. Hobekien egokitutako animaliek aurre egiten diote elurteari eta bailaretara jaisten dira, gainontzekoak bustita eta janaririk gabe hil egiten dira, animalia pisutsuak baitira eta ez dute azkar mugitzeko aukerarik. Orkatzak esaterako, bizkorragoak dira, inguruari hobeki egokitzen dira eta ez da hildako orkatzik agertu.

Kintoko basoetan ere orein ugari agertu dira hilda, eta jaten eman diete basozainek gehiago hil ez daitezen. Egoera larriagoa denez, bertan laguntza hori ematea erabaki dute, Belate inguruan, ordea, laguntzarik ez ematea izan da erabakia, orein mantsoenak hiltzea onuragarria baita Azpiroztzen esanetan: "hautapen naturalak berea egin behar du. Urtearen garai zehatz batean zenbait animalia hiltzeak, gainera, ez du ondoriorik oreinen populazioan".

Neguari ez zaio askorik gelditzen, baina elurteak ez dira oraindik bukatu, eta oreinak elur artean bizitzera kondentatuak daude oraindik ere. Horrek ez die arazo handiegirik ere ekartzen oreinei, euren bizitokia da, eurek aukeratua, eta kaltea handiagoa egiten die gizakiak okupatutako lurralde beroagoak lurralde arrotz hotzak baino, orein gehiago hil baititu gizakiak hotzak baino.

ZORIONAK ZUEI!



BAKARTXO ETA ESTHER



Ander



Alaitz



GARAZI



FLOREN

Jarri zaitez kontaktuan gurekin **iragarkia** sartzeko!



pulunpe@gmail.com

VENTA DE LEÑA A DOMICILIO



635 90 91 95
✉ promanburillo@gmail.com

Erbiti, Basaburua



Gure egurraren
kalitatea eta prezioak
ikusten dituzunean
kea aterako diezu



DABID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA- PINTURA
TEL: 678 623866
argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizleak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

ZIAURRITZ



Internet etxean arazorik gabe!

22 Mb-erainoko abiadura, hilean 45,48€ ordainduta. Internetera konektatu, zure etxearen kokapena arazoa izan gabe.
-Telebista antenen instalazioak eta konponketak.
-Canal Plus-eko banatzaileak eta instalatzaileak. Eskaintza bereziak bezero berrientzat.
-Atezain automatikoak.

Tel: 848 410 500

WWW.SENATEL.ES

info@senatel.es



PROGRAMMAZIONE

[illegible]